

## Aurkezpena: *Euskalingua* - 5

Irakurle, agur t'erdi,

*Euskalinguaren* bosgarren zenbakia kaleratu dugu jadanik. Oraingoan ere zortzi artikulu mardulek osatzen dute aldizkaria. Lehengoan, Txillardegik batuaren izenean erdararekiko bizi dugun morrontza salatzen du: hiztegi mailan erdaratik hurrago dauden formak hobetsi dira, leherkari ozenduak dituzten arkaismoak baztertu dira, askotan euskararen fonologiaren aurka doan ortografia aukeratu da eta maileguak ez dira egokitu euskarara, hizkuntzalari horren ustez. Batuaren sorreran hain garrantzitsua izan zen Txillardegiren argumentazioa eta Europako beste hizkuntza askotan aipatutako arloan gertatzen denaren berri izateko aukera izango duzu.

Batua bera sortu aurretik, gerora agertu ohi diren zenbait joera aurkitu ditu Altonagak hemeretzigarren gizaldiko den Pierre Buruzain mediku hazpandarraren idazkietan: hitzak sortzeko joera (teutanizaioa) eta hibridismo dialektalak. *Eskualdun Gazetaren Almanakan* Buruzainek Pasteur zientzialariari buruz idatziko lana irudietan berriro argitara emanaz aparte, Altonagak Buruzainen biografia, lanak eta bere prosaren ezaugarriak aztertzen ditu.

Bestetik, erregistro neutro-jasoan, esaterako kazetariak albisteak irakurtzerakoan, egiten diren etenak, tonumotak, talde prosodikoen luzera eta abiadura aztertu ditu Gamindek, beste hizkuntzetako joeratik aldentuz, euskaraz eredu idatziak ahozkoari eragiten diola ohartuta eta bizkaierazko irakurketa neutro-jasoa egiteko proposamen baten bidean.

Oraingoan filosofia inguruko artikulua ere badaukagu *Euskalinguan*. Martin Bosch filosofoak historian zehar lengoaiak jokatu duen paperaz jardun du. Komunikatzeko gaitasuna ez da bakarrik gizakion eta hizkuntza gizakiok ei daukagun arimarekin lotu izan da. Gaur teknologia berriek, baina, badute zeresana hizkuntzaren arloan.

Aurreko *Euskalingua* zenbakiei jarraituta, bosgarren zenbakian ere corpus mailako beharrei lehenetasuna eman gura izan diegu. Hemen Nabarnizko lexikoa, fraseologia eta adibide erabilerak biltzen dituen artikulu mardula daukazu, Alberto Martínez de la Cuadraren eskutik. Kasu honetan I, J eta K letren ingurukoak ditugu.

Beste corpus lan garrantzitsua Barrutiak dakarrena. Euskal Herriko itsasoko lexikoa batuta, orain Kantauri Itsasoko beste leku batzuetakoa arakutzen dabil eta zenbaki honetan Asturiaseko Cuideiru, Lluarca eta Tapia herrietan arrantzaleekin elkarriketak eginez bildutakoak ekarri dizkigu.

Teknologietara pasatuz, ahots bihurgailuak, ahots naturalarekin konparatuta, kanpoko ebaluatzaileek zelan antzematen dituzten aztertzeko tresna erakusten digu Aholabek zenbaki honetako artikuluan. Ahots bihurgailu bat ona izan dadin ezaugarri batzuk bete behar ditu. Alde batetik, ulergarria eta naturala izatea eta, bestetik, emozioak -tristura, poza eta beste gogo-aldarteak-adierazteko gai izatea. Ebaluazio subjektiboa ahalik eta jende gehienek egin ditzaten errazteko weben bitartez erabiltzeko programa garatu dute.

Amaitzeko, Bakioko euskararen soinu egitura zehatz-mehatz deskribatuta eta aztertuta eskaini digute Gaminde eta bestek. Batetik, osagai segmentalak azaldu dituzte: bokaleak, kontsonanteak eta diptongoak. Bestetik, suprasegmentalak, hau da, intonazioa eta azentua. Bakion batutako soinu corpora arakatuta alde fonetikoa eta fonologikoa aztertu dute; Bakioko hainbat toponimo ere ematen dituzte adibidetzat. Eredu ona benetan beste lekuetako aldaeren soinu egitura sakon erakusteko!

Eta besterik ez, irakurle, zortzi artikuluok gustura irakurriko dituzuena seguru nago.

*Esti Amorrortu*  
Editorea